



2

CEAR-Euskadiren Teoria-koadernoak

(I) Generoa eta Genero-ikuspegia

(II) Genero-arrazoiengatik jazarpena:

Asilo-eskubidea emakumezkoen oinarrizko
eskubideak urratzearen aurka



CEAR-Euskadi

Cristo 9B – 5º
48007 Bilbao
t 94 4248844
f 94 4245938
ceareuskadi@cear.es
www.cear.es

Finantziatzaioa:




Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

Edizio-urtea eta -lekua: Bilbo 2007an
Euskarazko itzulpena: Bakun Itzulpen
eta Argitalpen Zerbitzuak, S.L.
Diseinu Grafikoa: Alfredo Requejo
Lege-gordailua: BI-1374-07

Material hauek hurrengo pertsonek landu dituzte: Xabier Agirre, Xabier Aguiar, Itziar Caballero, Raquel Celis (coord.), Silvia Díaz, Leire Lasa, Iñaki Ramírez de Olano eta Maider Zarraga.

Proiektuaren koordinatzailea: Fernando Zubizarreta



Aurkibidea

Zer da Generoa?	4
Generoa eta Giza Eskubideak	5
Genero-ikuspegia Asilo-Eskubidean	6
Oinarrizko bibliografía	10

GENERO-ARRAZOIENGATIKO JAZARPENA

Emakumeek ezberdintasuna eta mendekotasuna jasan behar dute gizarte guztietan, hizkuntzako forma leunetatik hasi eta bere oinarritzko eskubideak erarik larrienean urratzeraino. Ez gara egoera bereziei buruz ari, bizitza eta segurtasunaren aurkako erasoez, tortura eta tratu jasangaitzez baizik. Horiek sarriegi gertatzen dira eta testuinguru gehiegitan.

Zer da Generoa?

“**GENERO**” kontzeptuak maskulinitasuna eta femeninitasuna eraikitzekeo prozesu psikosozialari egiten dio erreferentzia. Prozesu hori pertsona baten sexua zein den jakiten denean hasten da — sarritan, jaio baino lehen—, eta sozializazio prozesuaren bidez eraikitzen da, pertsona horren izateko, sentitzeko eta jarduteko era markatuko duen rol bat esleitzen zaionean.

* **Generoa da pertsonak sailkatzeko irizpide nagusia.**

Generoa testuinguru kultural, sozial, politiko eta ekonomikoaren araberakoa da, eta gizon nahiz emakumeei ezarritako portaera eta funtzioek erakusten dute.

Femenino edo maskulino eraikuntza sozial horri **genero-identitatea** deritzo, eta sexu bakoitzari dagozkion jardueri erreferentzia egiten die; zein objektu, leku, kolore hartzen dira femeninotzat eta zein maskulinotzat; jokabide-arauak, emakume ala gizon moduan ongi ari garen jakiteko eta gizarte baten berezko genero estereotipoak.

Estereotipoen hitz egitean izaerez eta sentierez ari gara:

- Honako hauek dira gizonezkoen, genero-identitate maskulinoaren arabera, esleitzen zaizkien izaera eta sentiera batzuk: adorea, independentzia, arrazionaltasuna, segurtasuna, indarra, erabakitzeko gaitasuna, apaltasuna eta prestutasuna.
- Honako hauek dira emakumeen, genero-identitate femeninoaren arabera, esleitzen zaizkien izaera eta sentiera batzuk: ikara, dependentzia, afektibitatea, ziurtasunik eza, ahultasuna, zalantza, konplexutasuna eta zintzotasun eza.

Gizonezko eta emakumezkoen funtzioak, egitekoak eta ardurak ere generoaren arabera banatzen dira. Genero-rol horien bidez, gizarteak betebeharrak, aurreikuspenak eta debeku ezberdinak esleitu dizkie gizonezko eta emakumezkoen. Rol horiek zenbait trebetasun bultzatzen dituzte eta beste batzuk mugatu.

- **Ugalketaren rola:** Ideia nagusia honakoa da: emakumezkoak dira seme-alabak, etxea, gaixok, familiakoak eta komunitatea zaintzeko ‘arduradun naturalak’.
- Horrela, emakumeak gehiengoak dira oraindik honako lanbideetan: gizarte-lanean, psikologian, gizarte-hezkuntzan...
- eta borondatezko lanetan.
- **Ekoizpen-rola:** Aurrekoaren aurkakoa; ekoizpenaren arloarekin zerikusia duten egiteko eta funtzio guztiak gizonezkoari esleitu ohi izan zaizkio.
- Horrela, gizonak dira dirua etxera eramateko, familia babesteko eta antzeko beste hainbat gauzen ‘arduradun naturalak’.
- eta GKEtan, gizarte-fundazioetan eta abarretan zuzendaritza-, erantzukizun- eta buruzagitza-postuak dituzte.
- * Genero-rolak gizartean hain finkatuta daudenez, oso zaila da horiek **ikasitako** zerbait direla ulertzea; guretzat naturaren beraren zati dira, sexu bakoitzak berezkoak dituenak.

Ugalketa-rolaren eta ekoizpen-rolaren egiteko eta funtzioek espazio esleituak dituzte:

Ugalketa-rola → espazio pribatua

Ekoizpen-rola → espazio publikoa

Ondoriak

Historian zehar egin den banaketa horren ondorioz, gizonezkoek eta emakumezkoek ez dituzte aukera berak izan ezagutzak, ondasunak, diru-sarrerak eta eskubideak eskuratzeko. Horiek horrela, emakumezkoek gizonezkoek baino ardua handiagoak izan dituzte, senideen zaintzari eta komunitatearen garapenari dagokionez, eta, gainera, emakumezkoen sexualitatea mugatu izan da.

Genero-erolek **botere-harremanak sortu dituzte, eta azken horien gauzape nagusia gizonezkoen dominazioa eta emakumezkoen mendekotasuna izan da.**

Emakumezkoak pobreziaren atarian bizi diren 1.300 milioi pertsonetatik %70 dira; munduko lurren % 1 da berea eta ezjakinen artean 2/3 dira.

- * Osasunaren Mundu Erakundearen (OMEren) arabera, emakumezkoen %47k dio lehen sexu-harremana izatera behartu egin zutela (OME, 2002).

Eta orain zer egin?

Gizarteak eraikitako rola eta sexu bakoitzaren ezaugarri biologikoak bereizi direnean, **agerian geratu dira ezberdintasun horiek, eta aukera ematen digu horiek iraunarazten dituzten rola azaltzeko eta aldatzen saiatzeko.**

GENERO-IKUSPEGIA ezinbesteko analisi- eta planifikazio-tresna da honako hauetarako: testuinguru zehatz batean gizonezko nahiz emakumezkoen arteko harremanei buruzko **informazioa lortzeko;**

bien arteko ezberdintasuna sortzen eta birsortzen dituzten prozesuak, gaitasunaren asimetria-balorazioa, eta portaerak nahiz baliabide eta boterea lortzeko ezberdintasunak **ulertzeko;** ezberdintasun horiek ezabatuko dituzten ekintzak **diseinatzeko.**

- * Ezberdintasuna ezagutu eta baloratzea eta berdintasunaren printzipioa konsubstantzialak dira

Beraz, Genero-ikuspegia honako honetarako erabili behar dugu:

- Errealitateak gizonezkoek nahiz emakumezkoek nola eragiten dien ikusi ahal izateko.
- Testuinguru zehatz batean gizonezko eta emakumezkoen arteko harremana nolako den ulertu ahal izateko.

Genero-ikuspegia ez datza emakumezkoen giza eskubideen alde lan egitean; gauza ez diskriminatzea da, eta burutzen dugun horretan emakumezkoak gizonezkoak bezain kontuan hartzea.

- * Maskulinoa orokor eta femeninoa partikular bihurtzen duen begirada gaindi dezagun

Jar ditzagun GENERO-BETAURREKOAK!!!!

Generoa eta Giza Eskubideak

Historian zehar giza eskubideak **ikuspegi androzendristatik kontzeptualizatu** eta egituratu dira, hau da, gizonezkoen esperientzia eta beharretan oinarritu dira eta ez emakumezkoenetan.

Paradigma nagusiak giza eskubideen defentsa-baliabideak bizitza publikoan kokatu ditu, bereziki hiritar-Estatu harremanean; baina bere eskumen-eremutik kanpo utzi ditu testuinguru familiarrean, pribatuan, gertatzen diren eskubide-urraketak.

Emakumezkoen eskubide-urraketa handienak testuinguru pribatuan gertatzen direla eta horien genero-harremanetan oinarritzen direla onartu da. Horrek eztabaida bat piztea ahalbidetu du, bereziki

emakumezkoen eskubideak zainduko dituzten baliabideen eta giza eskubideen **birkontzeptualizazio** beharraren ingurukoa.

Egoera horiek honako hau egitera bultzatzen gaituzte:

a Emakumezkoen giza eskubideei buruz hitz egitera.

Giza eskubideak: emakumezkoenak?

Nazio Batuek nazioarteko agiri juridiko batzuk egiten lagundu zuten, emakumezkoen eskubide multzo zehatzak aitortzea helburu zutenak.

Honako hauek dira testurik garrantzitsuenak:

- Nazio Batuen Batzar Nagusia, Emakumezkoen aurkako Diskriminazioa deuseztatzeari buruzko Deklarazioa (1967)
- Emakumezkoen Aurkako Diskriminazio Mota Guztiak Deuseztatzeari buruzko Konbentzioa (1979)

b Giza eskubideen defentsa- eta sustapen- baliabideak **generoaren ikuspuntutik** berraztertu eta egokitzea.

Azken hamarkadan, emakumezkoak bildu egin dira giza eskubideen nazioarteko arauak aplikatzerakoan dauden ezberdintasunak gainditzeko. Nazioarteko Komunitateari dei egin diote giza eskubideak emakumezkoen eskubideak ere badirela aitortu dezan.

- * Alde izugarria dago eskubideak izatearen eta horiek betetzearen artean

Genero-Ikuspegia Asilo-Eskubidean

Asilo-Eskubidea

Giza eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 14. artikulua dionez, asiloa bilatu eta izateko eskubidea oinarriko eskubidea da.

II. Mundu Gerraren ostean, nazioarteko komunitateak lehen aldiz jo zuen bere arduratutako beren jatorriko herrialdetik ihes egin behar izan zuten pertsonen egoera.

Nazio Batuen testuinguruan, Genevako Hitzarmena sinatu zen 1951n. Horren arabera, errefuxiatua honako arrazoi hauengatik jazarria izateko beldurra duena da:

- arraza,
- erlijio,
- nazionalitate,
- gizarte-talde jakin batekoa izateagatik
- edo iritzi politikoengatik

bere nazionalitateko herrialdetik kanpo dagoena eta herrialde horretako babesa lortu ezin duena edo beldur horiengatik lortu nahi ez duena.

1951ko Genevako Hitzarmena eta 1967ko New Yorkeko Protokoloa sinatu duten Estatuak beren lurraldera asilo bila datozen pertsonak **hartu eta babestu behar** dituzte. Baliabide horiek dira Espainian Asilo-eskubidea aitortzeko oinarriak.

Genero-Arazoiengatiko Jazarpena

Oinarriko eskubideen urraketa pertsona jakin bati sexuagatik, orientazio sexualagatik edota genero-identitateagatik emandako rolaekin lotuta badago, Genero-arrazoiengatiko jazarpena gertatzen da. Emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago sufritzen dute jazarpen hori, ezberdintasun-egoera dela-eta.

Generoagatiko jazarpenak honako hauek barne hartzen ditu:

a Sexuaren araberako zigorrak eta jazarpen-moduak

Sarritan, ez datoz bat emakumezkoek jazarpena egiteko erabiltzen diren mekanismoak eta gizonezkoek jazarpena egiteko erabiltzen direnak; hau da, sexuaren baitan dago zigorra.

Imajina dezagun diktadura baten aurkako alderdi politiko batean parte hartzen duten gizonezko baten eta emakumezko baten kasua. Gizonezkoa jazartzeko indarkeria fisikoa erabiltzen da —kolpeak eta lesioak—; emakumezkoa jazartzeko, berriz, sexu-indarkeria —bortxaketa, adibidez—.

b Generoan oinarritutako jazarpena.

Testuinguru zehatz batean pertsona jakin bati egindako genero-esleipenetan dago jazarpen horren oinarria. Emakumezkoen kasuan, ez zen jazarpenik gertatuko sexu horretakoak izan ez balira.

Talibanen erregimena indarrean egon zen bitartean, Afganistango emakumezkoek beren bizitzaren eremu guztietan sufritu zuten jazarpena. Gaur egun, bere horretan dirau herrialde horretako emakumezkoen egoerak.

Eta horrek zer esan nahi du?

Ikus ditzagun emakumezkoen aurkako indarkeria-egoera batzuk, asiloaren testuinguruan jazarpenzat har daitezkeenak:

• Oinarrian giza eskubideen aurkako gizarte-arauak eta jarduerak dituztenez, izatez jazarpenekoak diren legeak.

Emakumeen aurkako genero-indarkeriari buruzko NBEko errelatore bereziaren txostenaren arabera, 2003. urtean, gutxienez 54 herrialdek zeuzkaten emakumezkoak diskriminatzen zituzten legeak, eta ez zeukaten etxeko indarkeriaren aurkako legedirik (edo ez zen haren berri).

• Lege bat edo politika bat bete ez duena emakumezkoa bada, tortura, tratu jasanezin edota tratu iraingarri bihurtzen diren zigorrak.

Iran: 2003ko bi hilabetetan, 20 urtetik beherako 45 emakume hil zituzten hurbileko familiartekoen Khuzestán probintzian «ohore-arrazoiengatik hilketetan». (*Middle East Times*, 2003ko urriak 31).

• Helburuak justifikagarriak izanik ere, haiek betetzeko oso ondorio kaltegarriak metodoak dauzkaten lege edo politikak.

Mexiko: txirotasunari aurre egiteko laguntzak –Hezkuntza, Osasuna eta Elikadura (Progres) Programa, adibidez— kentzeko mehatxupean indigenak kontrazepzio-metodoak erabiltzera behartu izana leporatu

dio José Luís Soberanes Fernández arartekoak gobernuari. NBEk ere 2002ko abuztuan emakume indigenei egindako antzutzeei buruzko kontuak eskatu zizkion Vicente Foxen gobernuari. (*Magally, I y Ruiz, M. (2002): Címac, periodismo con perspectiva de género. (Mexiko Hiria).*

• Emakumezkoen askatasun edota osotasun fisikoa eta psikikoa asko mugatzen dituzten gizarte-legeak urratzean sortutako egoerak.

Pakistan: urtero, ehunka emakumezko erahiltzen dituzte 'ohorearen izenean'. Tirokatuta, erreta edota aizkorakadaka hiltzeko arriskuan daude, familiari 'lotsa' ekarri diotela uste badu norbaitek: beraiek aukeratutako gizonezkoarekin ezkontzea erabakitzen badute, dibortziatu nahi badute, bortxatu badituzte... (*Pakistan, homicidios de niñas y mujeres por motivos de honor. 1999ko iraila.*)

• Familia barruko indarkeria.

Hiru emakumezkoek batek edo, beste era batera esanda, mila milioi emakumezko, kolpeak, nahi gabeko sexu-harremanak edota abusua jasan dituzte bizitzan zehar.

Oro har, familiako kideren bat edo ezagunen bat izaten da abusatzailea. (*E, L Heise, M Ellsberg, M Gottemoeller, 1999.*)

• Pertsona-salerosketa beharturako prostituziorako edo sexu-esplotaziorako.

Europar Batasuna: Erakunde horrek eskuartean dituen datuen arabera, urtean 100.000 emakumezko inguru salerosten dira lurralde horretan.

• Orientazio sexualarengatik eta genero-identitatearengatik jazarpena.

70 estatu, gutxienez, sexu bereko pertsonen arteko sexu-harremanak debekatzeko zituzten legeak edukita sartu ziren XXI. mendean. (*Crimenes de odio, conspiración de silencio. Tortura y malos tratos basados en la identidad sexual. Amnistía Internacional, 2000.*)

Namibia: Estatuko telebistan jakinarazi zenez, Jerry Ekandjo Barne ministroak gayak eta lesbianak «Namibiako lurretatik» «desagerrarazteko» eskatu zien orduantxe graduatutako polizia batzuei.

- **Emakumezkoak gizonezkoak baino okerrago tratatzea eragiten duten diskriminazio-ereduak daude, eta horrek oso ondorio kaltegarriak ekar ditzake.**

Herri askotan, bizirik izango zirela aurreikusten zen 60 milioi neska `falta´ dira gutxienez. Sexuaren arabera abortua da horren arrazoa, edo, mutilak baino garrantzi gutxiagokotzat jotzen direnez, neskei jartzen zaien arreta falta. (*E, Joni Seager, 2003*).

- **Sexu-abusuak gerra-armatzat.**

Darfur (Sudan) eta Kongoko Errepublika Demokratikoaren ekialdea: sexu-abusua gerra-armatzat erabiltzen zen —eta erabiltzen da—, emakumezkoen eta nesken aurka. Emakumezkoak inon ez daude seguru, ezta errefuxiatuen esparruetan ere. Kongoko Errepublika Demokratikoko osasun-sistema lur jota dago, eta, beraz, bortxaketetatik bizirik ateratako emakumezkoek ez dute jasotzen lesioak eta infekzioak —zenbaitetan, hilgarriak— sendatzeko mediku-laguntzarik. (*África: perspectiva general 2004. Amnistía Internacional*).

Aurrera egin behar dugu EMAKUMEZKOEN GIZA ESKUBIDEAK BERMATUKO DITUEN ASILO-ESKUBIDEAREN INTERPRETAZIO-ESPARRUAN:

Asilo-eskubidea genero-betaurrekoekin begiratu. Eta zera ikusiko dugu:

Jazarpen-mota bakar bat era ezberdinean gauzatzen dela sexuaren arabera (aurkako gerrillako emakumezkoak bortxatu egiten dira, adibidez).

Familiako gizonen, erreferentzia-taldeetako edota komunitateko ezaugarriak —ideologia, jarduerak...— automatikoki esleitzen zaizkiela emakumezkoen zenbaitetan.

Askotan, eremu publikoko jarduerak `politikatzat´ jo daitezten, andro-zentrismotik garatuak izan behar dutela. Hori dela-eta, gerta daiteke emakumezkoen iritziak iritzi politikotzat ez jotzea —beste gauza askoren artean—.

Batzutan Estatuak jazartzen duela bere erakundeen edo agintarien bidez. Beste batzutan, familiarrak, komunitateko kideak edo beste eragile sozial batzuk direla jazartzen dutenak, batez ere, biktimak emakumezkoa denean.

Testuinguru askotan, EMAKUMEZKOAK emakumezko izateagatik jazartzen dituztela: GIZARTE-TALDE JAZARRIA DA.

ZER EGITEN DUGU CEAR-EUSKADIN?

CEAR-Euskadin hiru helburu hauek ditugu:

- Asilo-eskubidean eta haren prozeduretan Genero-ikuspegia sar dadin sustatzea.
- Genero-arrazoiengatikko jazarpena zer den jakinaraztea.
- Espainiako Gobernuak jazarpen hori benetan aitortzea.





Asilo-eskubidea

emakumezkoen oinarrizko eskubideak

urratzearen aurka

Oinarritzko bibliografia:

1. ACNUR (2002) Nazioarteko babesaren arauak: La persecución por motivos de género en el contexto del Artículo 1A (2) de la Convención de 1951 sobre el Estatuto de los Refugiados y/o su Protocolo de 1967.
2. ACNUR (1992): Manual de procedimientos y criterios para determinar la condición de refugiado en virtud de la Convención de 1951 y el Protocolo de 1967 sobre el Estatuto de los Refugiados.
3. ACNUR y Unión Interparlamentaria (2001): Protección de los refugiados. Guía sobre el derecho internacional de los refugiados. Guía práctica para parlamentarios.
4. Amnistía Internacional (2004): No más violencia ni discriminación contra las mujeres lesbianas y bisexuales. Actúa para poner fin a la discriminación y violencia por orientación sexual e identidad de género. Edición española por EDAI, Madrid.
5. Amnistía Internacional (2002): No hay excusa. Violencia de género en el ámbito familiar y protección de los Derechos Humanos de las Mujeres en España. EDAI, Madrid.
6. Amnistía Internacional (2001): Cuerpos rotos, mentes destrozadas. Tortura y malos tratos a mujeres. Gaztelaniazko edizioa EDAIk egina, Madrid.
7. Amnistía Internacional (2000): Respetar, proteger, observar... los Derechos Humanos de las mujeres. La responsabilidad de Estado en los abusos cometidos por agentes no estatales.
8. Caballero, Itziar (koord.). (2006): No entra: Genero-arrazoiengatik jazarritako emakumeei Asilo-eskubidea aitortzeko kanpaina. Errefuxiatuen Laguntzarako Euskadiko Batzordea (CEAR-Euskadi). Bilbo.
9. Celis, Raquel. (2006). Errefuxiatuen Laguntzarako Euskadiko Batzordearen (CEAR-Euskadiren) Asilo-hiztegia. Bilbo.
10. Genevako Hitzarmena: Genevako 1951eko Hitzarmena: Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Hitzarmena, Errefuxiatuen eta Aberrigabeen estatutuari buruzko Botereguztidunen Konferentziaren baitan (Nazio Batuak) izenpetua, 1951eko uztailaren 28an. Konferentzia hori Nazio Batuetako Batzar Orokorra deitu zuen 429 (V) ebazpenaren bidez, 1950eko abenduaren 14an. Indarrean sartzea. 1954ko apirilaren 22a, 43. artikulua arabera.
11. Pérez de Armiño, Karlos (zuz.). (2000): Ekintza Humanitario eta Garapenerako Lankidetzaren Hiztegia. Hegoa. Ekonomia-zientzien Fakultatea. Euskal Herriko Unibertsitatea, Bartzelona: Icaria Editorial, s.a.
12. Pérez, E eta Rodríguez, A. (koord.). (2005): Situación de los Derechos Humanos de gays, lesbianas, bisexuales y transexuales. Espainiako Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordea (CEAR). Madrid.
13. SRE/UNIFEM/PNUD (2004): Compilación selección del marco jurídico nacional e internacional de la mujer. Mexiko Hiria.
14. Valiente, M. (2005): La persecución por motivos de género y su protección en España, 2. Eranskina, Espainiako Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordearen (CEARen) Txostena. La situación de los refugiados en España 2005. Catarata, Madrid.